

Diru-iturriak

Gure enpresa abian jartzeko garaian bazkide bakoitzak 10.000€ ipiniko ditugu. 4 bazkide garenez enpresaren kapitala 40.000€ koa izango da, eta hau izango da gure lehen diru-iturria. Kapital honekin gastuei aurre egiteko zailtasunak izanez gero Laboral Kutxan epe ertaineko mailegua eskatuko genuke.



Bestalde, gure enpresaren diru-iturri nagusia gure aktiboaren salmentarekin lortuko dugu. Gure aktiboa, automatikoki birziklatzen duen zakarrontzi bat da, biztanlegoak modu eroso batean zaborra birziklatu dezan. Beraz, gure bezero nagusiak erakunde publikoak izango dira.

Zakarrontzi modelo bakarra ekoiztuko dugu eta bere prezioa finkoa izango da bezero guztientzat. Zakarrontzi bakoitzaren prezioa 30.000€ koa izango da, eta erakundeak erosteko kontratua sinatzen duenean prezio honen %40a ordaindu beharko du. Modu honetan zakarrontzia ekoizten hasi aurretik materiala erosteko dirua eskuratzen dugu eta zakarrontzia jartzen den momentuan %60a kobratuko da. Gure diru-sarreraren %75a aktiboaren salmentarekin lortuko dugu.



Enpresaren bigarren diru-iturria zakarrontziaren mantenurako eskainiko dugun zerbitzua izango da. Hilean behin langile batek zakarrontziaren funtzionamendua errebisatuko du eta beharrezkoak diren konponketak egingo ditu. Honekin, diru-sarreraren %10 lortuko dugu.

Azkenik, publizitatearen bidez diru-sarreraren %15a eskuratuko dugu. Zakarrontziaren paretetan enpresek bere publizitatea jartzeko lekua izango dute. Horrez gain, sare sozialetan albisteak argitaratzen ditugunean enpresa hauei aipamena egingo diegu. Gure produktuak ingurugiroaren zainketarekin lotuta dagoenez eta Garapen Iraunkorrerako Helburuetako batzuk betetzen dituenek diru-laguntzak eskatuko ditugu hainbat erakundeetan: Tolosaldea Garatzen, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia.